

Konponbiderako elkarriketarako baldintzak



Paul Rios*

DANI BLANCO

Lokarriko koordinatzaileak azken bake negoziazioa aztertu ostean, saiakerak zergatik huts egin zuen azaltzen du puntu orokor garbi batzuen bidez. Honela, etorkizuneko balizko bake prozesuak nolako egitura izan behar lukeen ondorioztatzen du.

2006ko prozesuak itxaropen handia sortu zuen euskal gizarte osoan. Uste orokorra zegoen zabaldutako prozesuak atzera egiterik ez zuela. Gertakariak kontrakoa erakutsi zuten. Elkarriketa politikoa eten egin zen, ETAk atentatua burutu zuen Madrilgo T4an eta prozesuak, aurreko aldietan bezala, porrot egin zuen.

Porrotak lagungarri dira hobetzeko. Zorigaitzez, bakeranzko prozesuen porrotek sufrimendu handiagoa eragiten dute. Orain, bakea lortzeko aukera berri bat zabaldu da eta, gutxienez, ez lirateke errepikatu behar aurreko akatsak. Ziurrenik, berriak egingo dira. Baina bake-prozesu berri baten euskarriak eta baldintzak ongi lantzen badira, erlatiboki errazagoa izango da azal daitezkeen arazoak gainditzea.

2006AN EGINDAKO AKATSAK

Indarkeriara itzultzeko mehatxua egotea izan zen lehendabiziko akatsa. Su-etena iragarri zuen ETAk, baina atzera itzultzeko aukerak prozesu tentsio egoera batera eraman zuen bere garapena oztopatuz. ETAk tutoretza hartu zuen bere gain,

prozesuaren bilakaera ebaluatzeko gaitasuna bere eginez. Horren ondorio nagusia izan zen sektore politiko guztiek ezin izan zutela parte hartu aukera berdintasunean.

Batasunak ere ezin izan zuen berdintasun horretaz gozatu, legez kanporatua baitzegoen. Hori muga bat izan zen publikoki bere proposamenak azaldu ahal izateko eta, gainera, baldintzatu egin zituen bere harremanak gainerako alderdi politikoeekin, ezin izan baitzuten finkatu elkarriketa publiko bat haiekin. Areago, elkarriketan jarduteko ahalegina gauzatu zutenean, salaketa penaletan nahasita ikusi zituzten beren buruak. Horren adibide izan zen Batasunako ordezkariarekin publikoki bildu izanagatik Ibarretxe Lehendakariaren eta PSEko buruen aurkako epaiketa.

Batasuna legez kanpo egotearen ondorioz, elkarriketa irekiak Loiolan sekretupean gauzatu ziren. Alderdien mahaia ez zen ofizialki eta publikoki osatu eta ez zituen partaide izan Legebiltzarrean ordezkari zuten alderdi politiko guztiak. Horrela, nahikoa erraza izan zen elka-

rizketa horiek haustea. Dena den, sekretismoa akats metodologiko larria izan bazen, are erabakigarriagoa izan zen elkarrizketak gidatzeko printzipioen eta prozeduren gabezia. Horiek gabe, ia ezinezkoa da blokeoak gainditzea, azkenean gertatu zen bezala. Loiolako elkarrizketetan parte hartu zuten alderdiek ez zuten baliabiderik eduki desadostasunak azaldu ziren uneari era partekatuan heltzeko.

Are gehiago, finkatuta zirudien oinarritzko adostasunetako bat elkarrizketa-mahaien arteko bereizketa zen. Planteamendu horren arabera, ETA eta Gobernua arduratuko ziren afera teknikoei (armak, indarkeriaren etetea, presoak) buruzko akordioak ixteaz. Bitartean, eduki politikoari buruzko elkarrizketa alderdien esparrura xedatuko zen. Elkarrizketa politikoa blokeatu zelarik sortu zen arazoa. Indarkeriaren itzulera ekiditeko premiaren aurrean, ETA eta Gobernua gai politikoak hasi ziren lantzen beren elkarrizketetan.

Azkenik, gardentasunaren eta herri-partaidetzaaren gabezia izan zen beste akats azpimarragarrietako bat. Gizarteak ez zuen izan elkarrizketa politikoaren garapenaren berri eta zitalkeria areagotu baino ez zuen egin horrek. Sostengua ematen zioten sektoreei dagokienez, ez zuten izan herritarren euskarri bat materializatzerik eta zehazterik zaila delako babesa ematea ezagutzen ez denari.

BAKE-PROZESU ATZERAEZIN BATERAKO BALDINTZAK

Bake-prozesu batek ez du inoiz diseinu perfekturik. Beti azaltzen dira arazoak. Prozesu baten arrakasta bermatu ahal izateko, euskarriak sendoak izatea eta eragozpenak era partekatu eta eraitkitzailean kudeatzea da garrantzitsua. Hain zuzen, 2006ko esperientziak erakusten du zein garrantzitsua den prozesu baten bideragarritasuna bermatzeko baldintzak sortzea. Laburbilduz, ezinbestekoak dira parte hartu ahal izateko askatasuna eta aukera berdintasuna. Gurera ekarrita, indarkeriaren amaiera eta legalizazioa dira ezinbesteko baldintzak.

Alde batetik, elkarrizketaren gaineko presioa deuseztatuko luke indarkeriaren amaierak eta sektore politiko guztien partaidetza ahalbidetuko luke indarkeriak dakarren mehatxurik gabe, gainera konfidantza eraginez inplikaturiko sektore guztien artean. Bestetik, indarkeriaren amaiera itzulerarik ez duen bide batean sartuta, ekiditen da ETAk bereganatzen saiatzea gai politikoei buruzko protagonismoa, ez baitagokio berari.

Legalizazioari dagokionez, honako premisatik abiatu behar da: gaur legez kanpo dagoen Ezker Abertzalea euskal gizartearen partaide da eta, beraz, badu bake-prozesuan gainerako alderdi politikoek dituzten aukera berberekin parte hartzeko eskubidea. Bada garrantzia duen zerbait: Ezker Abertzalearen legalizazioak etorkizunean alderdien arteko elkarrizketa ofiziala izatea ahalbidetuko luke. Elkarrizketa mahai bat publikoki osatzen delarik, zailago da alderdietako batek elkarrizketak zokoratzea. Eta hala egiten badu, iritzi publikoak hari leporatuko dio elkarrizketaren haustura. Horrela, denek beren burua behartuta ikusten dute ahalegin bat gauzatzera elkarrizketa abian mantentzearen. Stormonteko elkarrizketak adibide paradigmaticoa izan ziren. Krisi eta blokeoak izan zituzten aurrez aurre une ezberdinetan, baina inork ez zituen elkarrizketak utzi nahi izan. “Nola azal dezakegu ateratzerakoa?” egiten zuten galdera.

PRINTZIPIOAK, PROZEDURAK, EGUTEGIA ETA EGITURA

Prozesu bati berme gehiagorekin heltzea ahalbidetzen du guztien partaidetzak aukera berdintasunean. Baina elkarrizketa prozesu batek arrakasta izan dezan akordio metodologikoak beharrezkoak direla ere erakusten du 2006ko esperientziak. 2006an zuzenean ekin zitzaion akordio politiko baterako edukiei buruzko eztabaidari. Hitz egitea beti da onuragarria, baina akordio bat lortzeko elkarrizketan jarduteak beharrezkoa du metodo bat. Ezinbestekoak dira elkarrizketa prozesua gidatuko duten oinarri metodologikoei buruzko lehendabiziko akordio

batera iristea ahalbidetzen duten “elkarriketari buruzko elkarriketak”.

Partaideen metodologia betekizunak dira konpromisoak, elkarrenganako berme gisakoak. Horiek dira negoziazio mahaira bildu aurretik denek onartu beharreko arau nagusiak. Mitchell printzipioak adibide ona dira. Elkarriketaren garapenean eragiteko indarkeriarekiko eta indarkeria erabiltzeko mehatxuarekiko errefusa eta aurkaritzak, aniztasunari errespetuak edo betoen gabeziak gida bezala funtzionatzen duten lehen-dabiziko printzipioak dira.

Elkarriketa prozesu osoa –zehatz-mehatz eta urratsez urrats– arautzeari dagozkio prozedura irizpideak. Funtzionatzeko araudia, alegia. Prozedura gaien baitan biltzen dira: alderdi bakoitzaren ordezkaritza, bileren garapena arautzea, lan-epe bat eta desadostasunen aurrean jarduteko era finkatzea.

Egutegia estuki lotuta dago elkarriketaren helburuekin, bilatzen den akordio multzoarekin. Egutegia aurretik zehazteak akordio bat lortzeko erabiliko diren prozedurak behar bezala zehazten laguntzen du.

Bukatzeko, elkarriketa finkaturiko helburuen arabera ordenatzea ahalbidetzen du egiturak. Komeni da egitura honek elkarriketarako abiapuntu batzuk seinatzea, desadostasun eremuak identifikatuz. Elkarriketa politiko baten helburua ez da aurkari politikoa konbentzitzea, partekatuak izan daitezkeen akordioak lortzea baizik kontuan hartuz dauden desadostasun legítimoak, zeinak euskal gizartearen aniztasunaren oinarri baitira.

ONDORIO BAT

2006ko alderdien mahai bat ezinezkoa dela entzun dakioke gaur hainbat buruzagi politikori. Loiolako elkarriketak elkarriketa-mahai baten suzedaneo bat izan zirela da artikulua honen tesia. Isil-gordean gertatzen den zerbait, alderdi politiko guztien partaidetzarik gabe eta horietako bat legez kanporatua



LANDER ARBELAITZ

'Bakerantz, legalizazioa' lemapean Bilbon manifestazio ixila egin zuten milaka herritarrek joan den otsailaren 19an.

egonik, ezin da elkarriketa-mahai izendatu. Elkarriketa beharrezkoa da eta beharrezkoa izango da, izan Legebiltzarraren barruan edo kanpoan. Behin indarkeriaren amaiera eta legalizazioa lortuta, ez dira bukatuko arazo guztiak. Euskal gizarteak era partekatuan aurre egin beharko die giza eskubide guztien bermeari, proiektu politiko demokratiko guztientzako aukera berdintasunari, elkarbizitzeko oinarritzako adostasunei, memoriari eta gizartearen adiskidetzeari. Elkarbizitza barneratzaile batek beharrezko ditu elkarriketa eta akordioa. Bakea lortu beharra dago, baina euskarriak ere finkatu behar dira etorkizunean errepika ez dadin azken 40 urte hauetan gertaturikoa.

** Paul Rios Lokarriko koordinatzailea da*